



UNIÓN EUROPEA

Fondo Europeo de Desarrollo Regional
(FEDER)

Europa eraikitzen modu bat

DEBAGOIENENKO KANPOKO ARGIZTAPEN INSTALAZIOEN BERRITZEKO PROIEKTUA

Debagoieneko Udalen Energiaren Eraginkortasunarekin duten Konpromisoa

Debagoieneko udalek ingurumenarekin duten konpromisoa zenbait eginkizun eta proiektuetan gauzatu da eta kanpoko argiztapen instalazioak berritze proiektoa konpromiso horretan txertatu dezakegu.

Kanpo argiteriaren arloa garrantzi handia du udalen zerbitzuen kudeaketan. Batetik, herrietako kaleak behar bezala argiztatzea udalen eginbeharreko bat da, baina esandakoa, udalek zerbitzu hori modu eraginkorrean eta jasangarrian bete behar dute. Bestetik, kanpo argiteriaren kosteak esanguratsuenetarikoak dira udal-zerbitzuen atalean eta koste horiek ahal den neurrian egokitu behar dira.

Azkeneko urteetan teknologi berriek aukerak ireki dituzte argiteriaren kudeaketa modu eraginkor eta jasangarrian egin ahal izateko. Horrela, Debagoieneko Udalek esparru horretan pausu garrantzitsuak eman dituzte eta esperientzia pilotuak ere abian jarri dituzte kale eta bidegorrien argiztatze prozesuetan. Oraingoan IDAEn laguntzarekin eta Europear Batasunaren (FEDER) laguntzarekin aurkezten dugun proiektuarekin jausi kualitatibo eta kuantitatiboa ematen da, horrela Debagoieneko herrietako 2.870 argi puntu edo farola aldatuko dira led teknologia ezarriz eta horren ondorioz gaurko egoerarekin alderatuta, aldatuko den kanpo argiteriaren energiaren kontsumoa %71an gutxituko da.

Proiektuaren edukiak-kopuruak

Garatzen den proiektuarekin eskualdeko 2.870 argi puntu aldatuko dira. Gaur egun argi puntu horien kontsumoa urteko 2.249.737 KWhkoa da aldatuta horren ostean kontsumoa 710.667 KWhko izango da, hau da gaur egungo kontsumoarekin alderatuta %31koa izango da. Kontsumo jaitsiera hori eurotan neurtuta suposatuko du, gaur egungo 326.001 €ko kostetatik 103.025 €ko kostetara jaitea, hau da 222.976,- euro urtero aurreratuko dira.



FONDO NACIONAL DE
EFICIENCIA ENERGÉTICA

Alumbrado



UNIÓN EUROPEA

Fondo Europeo de Desarrollo Regional
(FEDER)

Europa eraikitzeke modu bat

Bestalde, aldatu behar diren gaur egungo instalazioen CO2ko isurketak 764.910 kgkoak dira. Aldaketa ostean isurketa horiek 241.627kg tara jaitsiko dira, beraz CO2ko isurketak 523.284 kgtan gutxituko dira.

Proiektuak 1.464.779,38 euroko inbertsioa suposatuko du bere osotasunean IDAEk finantzatuta interes gabeko hamar urteetarako mailegu baten bitartez Europear Batasuneko FEDEReko fondoekin hornituta. Laguntzaren pareko kopurua 307.983,80 eurokoa izango da, hau da, inbertsioaren kopuru osoaren %21,03koa.

Egindako inbertsioa energiaren kontsumoan lortuko diren aurrerapenekin amortizatuko da 7 urteko epean.